23/08/2021	020SEMS	EUSKALTEL S.A.	BRANKA 2021/07/22 - 2021/08/21	38,79
23/08/2021	020SEMT	EUSKALTEL S.A.	UDALTZAINGOA 2021/07/22 - 2021/08/21	52,59
23/08/2021	020SEMU	EUSKALTEL S.A.	ZINEGOTZIAK 2021/07/22 - 2021/08/21	145,23



23/08/2021	020SEMV	EUSKALTEL S.A.	UDALA 2021/07/22 - 2021/08/21	340,88
23/08/2021	020SHRI	EUSKALTEL S.A.	EPAITEGIA 2021/07/22 - 2021/08/21	24,44
23/08/2021	020SHS8	EUSKALTEL S.A.	UBILLOS 2021/07/22 - 2021/08/21	22,52
23/08/2021	020SK1Z	EUSKALTEL S.A.	INTERNET 2021/07/22 - 2021/08/21	80,83
				38.241,99

ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

ALKATEA

Ogasun batzordean aipatu ziren, eta informatuta eratzten dira.

3.2.- 2021EKO UDALAREN 23., eta 24., KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA

23. Kreditu aldaketa azaltzen da zein izan den, informazioa eman zen ogasun batzordean,

KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA
Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0100.227.163.00.01 2021	KALE GARBIKETA	500.000,00	71.227,41	428.772,59
GUZTIRA		500.000,00	71.227,41	428.772,59

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0900.209.920.01.01 2021	ZUNTZ OPTIKOA, SAREAREN ALOKAIRUA	0,00	2.605,00	2.605,00
1 0900.219.920.01.01 2021	ZUNTZ OPTIKOA, MANTENIMENDUA	0,00	395,00	395,00
1 1000.227.920.01.92 2021	TEKNOLOGIA BERRIEI BURUZKO HITZALDIA	0,00	2.730,00	2.730,00
1 0100.643.151.00.01 2021	HIRIGINTZAKO AZTERLANAK	115.000,00	13.310,00	128.310,00
1 0100.643.432.00.01 2021	MUSEOGRAFIKORAKO PROIEKTUA	0,00	16.410,00	16.410,00



1 1100.226.432.00.03 2021	ARGITALPENAK-TURISMO	1.000,00	1.562,41	2.562,41
1 0900.220.161.00.04 2021	KAUDALOMETROEN SIM TXARTELAK	1.300,00	1.015,00	2.315,00
1 0100.601.134.00.01 2021	SAN TELMO IGOGAILUA	350.000,00	16.600,00	366.600,00
1 0100.601.153.21.03 2021	SAN JOSE AUZOAN IGOGAILUA EGITEKO EGOKIT	400.000,00	16.600,00	416.600,00
GUZTIRA		867.300,00	71.227,41	938.527,41

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaia,
Alkatea,

24. kreditu aldaketa

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0600.781.172.00.01 2021	EKIOLA PROIEKTURAKO DIRU- LAGUNTZA	0,00	60.000,00	60.000,00
GUZTIRA		0,00	60.000,00	60.000,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
------	---------	----------	------------



a	2 0000.870.920.00.01 2020	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	60.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			60.000,00

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaia
Alkatea,

24. kreditu aldaketa ere informatuta geratzen da,

Orain pasatzen gara irizpenetara,

3.3.- IRIZPENAK:

3.3.1.- UDALAREN 25., eta 26., KREDITU ALDAKETAK ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

UDALAREN 25.KREDITU ALDAKETAREN IRIZPENA

Transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2021-KALD-000026-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, 2021eko urriaren 15ko Ogasun Batzordean, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren,

IRIZPENA

Lehenengoa.- 2021eko urriaren 22an ospatzen den batzorde honek onartzen du/ez du onartzen Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzia modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:



Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	9.500,00	9.500,00	0,00
GUZTIRA		9.500,00	9.500,00	0,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK	135.000,00	9.500,00	144.500,00
GUZTIRA		135.000,00	9.500,00	144.500,00

Bigarrena.- Kreditu transferentzien espedientea onartzeko, ez dago jarraitu beharrik aurrekontua onartzeko aurreikusitako informazio, erreklamazio, errekurtsio eta publizitate araurik. Behin, Osoko Bilkurak onartzen duenean behin betiko bihurtuko da.

Aldeko botoak: 6 (3 BILDU, 2 EAJ, 1 PSE)

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen/ez da onartzen da.

Batzordeburua

Kontu-hartzailea

Bozkatzera pasatzen da,

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: Udalaren 25. kreditu aldaketa onartzen da,

26. kreditu aldaketa

“Konpromiso kreditu bidezko kreditu aldaketaren 2021-KALD-000027 zenbakidun espedienteak onartzeko irizpena”.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman zen, 2021eko urriaren 15eko Ogasun Batzordean kreditu konpromiso modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak 22. artikuluan.

Gaia aztertu ondoren,

IRIZPENA



Lehenengoa.- 2021eko urriaren 22an ospatzen den Ogasun Batzorde honek onartzen du Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu konpromiso modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

.- 2022 urterako konpromiso-kredituak sortzea:

5 0100.227.164.00.99 (Hilerriko kontratua) : 100.000,00€.

5 0100.601.134.00.01 (San Telmo igogailua): 312.600,00€.

5 0100.622.321.10.01 (Sagarbide-Hobetze obrak hezkuntzan): 69.203,00€.

5 0100.643.134.00.01 (Larretxoko igogailua proiektua eta zuzendaritza): 93.000€

Finantzaketa, aurrezki garbia.

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Aldeko botoak: 6 (3 BILDU, 2 EAJ, 1 PSE).

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen da.

Batzordeburua

Kontu-hartzailea

Bozkatzera pasatzen da,

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: Udalaren 26. kreditu aldaketa onartzen da,

3.3.2.- ZUMAIKO UDALAREN ETA KIROL PATRONATUAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 2. ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 2.ALDAKETA

IRIZPENA

AURREKARIAK

2021eko otsailaren 8an behin betikoz onartu ziren Zumaia Udalaren, eta bere organismo autonomoa den Kirol Patronatuaren 2021.urteko aurrekontuak GAO-n argitaratuz. Horren ondorioz, eta 38/2003 diru-Laguntzen Lege Orokorraren 8.artikuluko 1.puntua kontuan izanik, 2021-2023 urteetarako diru-laguntzen plan estrategikoa onartu zen, eta 2021eko martxoaren 30ean GAO-n argitaratu zen.



Ondoren, 2021eko uztailaren 29ko Osoko Bilkurak diru-laguntzen plan estrategikoaren 1.aldaketa onartu zuen, eta 2021eko abuztuaren 10eko GAO-n argitaratu zen, aldaketa hori.

Azkenik, udalaren 14., eta 23.kreditu aldaketaren onarpenaren ondorioz, diru-laguntzen plan estrategikoaren 2.aldaketa onartu beharra dago:
Aldaketaren proposamena, 1.eranskinean dago.

IRIZPENA

1. Ondoren, udalaren 14, eta 23..kreditu aldaketaren ondorioz, diru-laguntzen plan estrategikoaren 2.aldaketaren berri eman da 2021eko urriaren 15eko Ogasun Batzordean.

2. Horregatik, 2021eko urriaren 22an ospatzen den batzorde honek, onartzen du/ez du onartzen 2021-2023 epealdiko diru-laguntzen plan estrategikoaren 2.aldaketa, hurrengo botoekin:

Aldeko botoak: 6 (3 BILDU, 2 EAJ, 1 PSE)

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea/ez eramatea erabakitzen da.

2. Horren ondoren, Herri Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren bat etorri GAO-n argitaratuko da.

Batzordeburua

Kontu-hartzailea

Bozkatu egiten da

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: Zumaia Udalaren eta Kirol Patronatuaren diru laguntzen plan estrategikoaren 2. aldaketa onartzen da,

4.- LURRALDE ANTOLAMENDUA (Hirigintza, Ingurumena, Zerbitzuak eta Auzoak).-

4.1.- IRIZPENAK:

4.1.1.- ZUMAIKO ARTADI AUZOA 8KO, VILLA BETIKO HANDITZEKO XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2021EKO URRIAREN 18KO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO ARTADI AUZOA 8KO, VILLA BETIKO HANDITZEKO XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEKO



AURREKARIAK

1.- Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko ekainaren 24an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez, hasierako izaeraz onartu zen Zumaia Artadi auzoko 8. zenbakian Villa Betiko handitzeko Xehetasun Azterlana, Cristina Calvo Mongek eta Ignacio Zearreta Letamendiak aurkeztua eta Ramon Andueza Diaz eta Lander Berasategi Gesalaga arkitektoek idatzia.

Erabakia jendaurrean jarri zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (201-07-06) eta Diario Vasco egunkarian (2021-07-08) argitaratutako iragarki publikoen bidez. Era berean, erabaki horren berri eman zitzaion finkaren mugakide diren jabeei.

Jendaurreko epean, ez da inolako kexarik, erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu.

2.- 2021eko urriaren 18ko Lurralde Antolamenduaren Informazio Batzordean xehetasun-azterketaren berri eman zen.

IRIZPENA

Ondorioz, 2021eko urriaren 4ko Lurralde Antolamendurako Batzorde informatiboak, ondorengo botoekin

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (EHBildu)
Marina Bidasoro (EHBildu)
Alex Oliden Antia (EHBildu)
Oier Korta Esnal (EAJ)
Ainhoa Illarramendi (EAJ)

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

ALDEKO iritzia eman du eta honako IRIZPEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Zumaia Artadi auzoko 8. zenbakian Villa Betiko handitzeko Cristina Calvo Mongek eta Ignacio Zearreta Letamendiak aurkeztutako eta Ramon Andueza Diaz eta Lander Berasategi Gesalaga arkitektoek idatzitako Xehetasun Azterlanari behin-betiko onarpena ematea.

2.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Zumaia, 2021eko urriaren 18a
Lurralde Antolamenduaren batzordearen arduraduna

Behin behineko onarpena eman ondoren, behin betiko onarpena bozkatzen da,

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0



ERABAKIA: **1.-** Zumaia Artadi auzoko 8. zenbakian Villa Betiko handitzeko Cristina Calvo Mongek eta Ignacio Zearreta Letamendiak aurkeztutako eta Ramon Andueza Diaz eta Lander Berasategi Gesalaga arkitektoek idatzitako Xehetasun Azterlanari behin-betiko onarpena ematen da.

2.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

4.1.2.- ZUMAIAKO OINEZKOEN ETA IBILGAIUEN ZIRKULAZIO ORDENANTZAREN BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA , BIDEZKO BADA.

2021EKO URRIAREN 25EKO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO OINEZKOEN ETA IBILGAIUEN ZIRKULAZIO ORDENANTZARI BEHIN-BETIKO ONARPENA EMATEKO.

AURREKARIAK

1.- Indarrean dagoen oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazio ordenantza 2000.urtean onartu zen, eta ordudanik hainbat aldaketa egon dira zirkulazio legediari dagokionez eta Zumaia herriaren egituran.

2.- Hori kontuan hartuta, udal-gobernuak oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazio ordenantza egungo beharrei eta egoerara egokitzeko lan egin du. Ildo horretan, 2021eko ekainaren 23an, herritarrek ekarpenak egiteko epea zabaldu zuen.

3. Araudi hori indarrean dauden legeen arabera egokitu da eta Zumaia oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa hobetzea du helburutzat. Horrela, herritarren segurtasuna bermatu eta ibilgailuen trafikoa arindu nahi da.

4.- Honakoak dira araudi berriak aurreikusten dituen zenbait berritasun: 30 km/h-ko abiadura-muga orokorra ezartzea, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak arautzea, kanpatze librea debekatzea edo aparkatzea debekatua dauden gune erreserbatuak arautzea.

5.- 2021-07-05eko Lurralde Antolamenduko Batzordean ZUMAIAKO OINEZKOEN ETA IBILGAIUEN ZIRKULAZIO ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO irizpena idazteko irizpideen berri eman da.

6.- Udalbatzak, 2021eko uztailaren 29ko ohiko bilkuran, hasierako onarpena eman zion «Zumaia oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazio ordenantzari.

7.- Agerraldi publikoan alegazio bakarra aurkeztu da, Jesus Basterretxea (NAN 16044132E) " Club Vasco de Usuarios de Autocaravanas SORBELTZ"-en izenean.

8.- Alegazioa juridikoki aztertu eta onartzea proposatu da eta horrela informatu da 2021eko Urriaren 18ko Lurralde Antolamenduko Batzordean.

IRIZPENA



Ondorioz, 2021eko urriaren 25eko Lurralde Antolamenduko Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (EHBildu)
Marina Bidasoro (EHBildu)
Alex Oliden Antia (EHBildu)
Oier Korta Esnal (EAJ)
Ainhoa Illarramendi (EAJ)

Aurka: 0
Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- Jesus Basterretxea (NAN 16044132E) " Club Vasco de Usuarios de Autocaravanas SORBELTZ"-en izenean aurkeztutako alegazioa onartzea.

BIGARRENGOA: ZUMAIAKO OINEZKOEN ETA IBILGAIUEN ZIRKULAZIO ORDENANTZAREN behin betiko onespena ematea.

HIRUGARRENGOA: Ordenantzaren BEHIN BETIKO onespeneren iragarkia eta ordenantza bera GAOn argitaratzea.

Zumaia, 2021eko urriaren 25an.
LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEBURUA
Iñaki Ostolaza Esnal

Azalpena eman ondoren, bozkatzera pasatzen da,

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: LEHENA.- Jesus Basterretxea (NAN 16044132E) "Club Vasco de Usuarios de Autocaravanas SORBELTZ"-en izenean aurkeztutako alegazioa onartzea.

BIGARRENGOA: ZUMAIAKO OINEZKOEN ETA IBILGAIUEN ZIRKULAZIO ORDENANTZAREN behin betiko onarpema ematen da.

HIRUGARRENGOA: Ordenantzaren BEHIN BETIKO onespeneren iragarkia eta ordenantza bera GAOn argitaratzea



4.1.3.- AYRA DUREX GKN ZUMAIA ENPRESAREN (SAGARBIDEA 2, 15 HA, ZUMAIA) LERROKADURAK ETA ALTUERAK ALDATZEKO XEHETASUN-AZTERLANAREN ALDAKETARI, BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2021EKO URRIAREN 25EKO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BARRUAN, GKN DRIVELINE ZUMAIK SUSTATUTAKO 15 HA-AYRA DUREXKO XEHETASUN-ESTUDIOAREN ALDAKETARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO

AURREKARIAK

- 1.-** 2021eko irailaren 6ko Ezohiko Tokiko Gobernu Batzordean ondorengo erabakia onartu zen: "AYRA DUREX GKN ZUMAIA ENPRESAREN (SAGARBIDEA 2, 15 HA, ZUMAIA) LERROKADURAK ETA ALTUERAK ALDATZEKO XEHETASUN-AZTERLANAREN ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA".
- 2.-** Indarrean dagoen legediak xedatutakoaren arabera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2021eko Irailaren 20) eta zabalkunde gehien duen lurraldeko egunkari batean iragarkia argitaratuz (DV 2021/09/16) eta agerraldi publikoan egon da 20 eguneko epean, azken argitalpenetik zenbatzen hasita.
- 3.-** Jendaurrean izan zen epean ez da alegaziorik aurkeztu.
- 4.-** Irizpena jaso dezan Zumaia Plangintzako Arau Subsidiarioen barruan, GKN AYRA DUREX-ek sustatutako 15 HA-Ayra Durex-eko Xehetasun Azterketaren aldaketa aurkezten da.

IRIZPENA

Ondorioz, 2021eko Urriaren 25ean, ondorengo botoekin

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (EHBildu)
Marina Bidasoro (EHBildu)
Alex Oñden Antia (EHBildu)
Oier Korta Esnal (EAJ)
Ainhoa Illarramendi (EAJ)

Kontra: 0
Abstentzioa: 0

Hirigintza Batzorde informatiboak ALDEKO irizpena eman du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

- 1.-** Zumaia Plangintzako Arau Subsidiarioen barruan, GKN AYRA DUREX-ek sustatutako 15 HA-Ayra Durex-eko Xehetasun Azterketaren aldaketari behin-betiko onarpena ematea.
- 2.-** Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

Azalpenik ez dauka eta bozkatzera joango gara,



Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: 1.- Zumaiako Plangintzako Arau Subsidiarioen barruan, GKN AYRA DUREX-ek sustatutako 15 HA-Ayra Durex-eko Xehetasun Azterketaren aldaketari behin-betiko onarpena ematen da.

2.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

4.1.4.- SAN TELMOKO AU 02 UNITATEAN DAGOEN PARTZELA BAT DESJABETZEKO BALIO JUSTUA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

2021EKO URRIAREN 25EKO LURRALDE-ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA, SAN TELMOKO AU 02 UNITATEAN DAGOEN PARTZELA BAT DESJABETZEKO BALIO JUSTUA ONARTZEARI BURUZKOA.

AURREKARIAK

1.- Ikusirik **2021eko Ekainaren 10eko ohiko bilkuran** Toki Gobernu Batzordeko batzarrean Zumaiako Udaleko Zerbitzu teknikoek idatzitako ZUMAIAKO 02 HAKO 2.1. EUAREN PLAN BEREZIARI, SAN TELMOKO IGOGAILUA EZARTZEKO, EKOLUR Asesoría Ambiental, SLL-k idatzitako Ingurumen-dokumentu estrategikoaren dokumentua barne, hasierako onspena eman zitzaioela.

2.- Ikusirik Espedientea jendaurrean jarri 20 lanegunez eta dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean tirada gehien duen egunkarian (DV) iragarkia argitaratu da, interesatuek proiektua aztertu eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkez ditzaten.

3.- Ikusirik Espedientea agerraldi publikoan izan zenean ez direla alegazio aurkeztu.

4.- Ikusirik Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren Plan Bereziari dagokion ingurumen-txosten estrategikoaren Ebazpena.

5.- Plan Berezia behin betiko onartu zen 2021eko irailaren 30eko osoko bilkuran.

6.- 1049/2021 Dekretuaren bidez, Zumaia SL flysch sozietatearen administratzaile bakarrari 10744 finkatik zetorren lurzati bananduaren balioespen-orria proposatu zitzaion, eta 35.000 euroko ordezkoko balioan balioetsi zen.

7.- Flysch Zumaia SL merkataritza-sozietatearen administratzaile bakarra den Aitor Careaga Azkarraga andreak, 2021eko urriaren 20ko idazkiaren bidez, proposatutako estimazio-orriarekin ados zegoela adierazi zuen.

8.- Txosten tekniko eta juridikoak ikusita, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearekin bat etorritik (Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957



Zumaia Udala

2021IAKU0009-A21/8363

Erregelamendua), 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen Testu Bategina eta Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea onartzen dituenak, honako hau proposatzen da:

IRIZPENA

Ondorioz, 2021ko urriaren 25eko Lurralde Antolamenduko Batzorde batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (EHBildu)
Marina Bidasoro (EHBildu)
Alex Oliden Antia (EHBildu)
Oier Korta Esnal (EAJ)
Ainhoa Illarramendi (EAJ)

Aurka: 0

Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENENGOA. Flysch Zumaia SL sozietatearen administratzaile bakarra den Aitor Careaga Azkarraga jaunarekin adostutako 35.000 euroko balio justua onartzea, 10744 finkatik desjabetzeko banantzen den lurzatiari dagokionez:

Deskribapena: TSSZP-1 lurzati, Zumaian San Telmo igogailua ezartzeko AU02 San Telmo errepidearen 1. egikaritze-unitatearen Plan Berezian definitua.

Laurogeita hamabi metro eta berrogeita hamar dezimetro koadroko azalera du (92,5 m²), eta bertan igogailu publiko bat egingo da, baita sarbideak ere.

Lurzati osoak muga egiten du: iparraldean, jatorrizko lurzatiarekin zati bat, Flysh hotela dagoen jatorrizko finkako garajeetara sartzeko arrapala, eta zati bat jabari eta erabilera publikoko espaloiarekin; hegoaldean, egikaritze-unitatetik kanpo dauden jabari eta erabilera publikoko azalerak; ekialdean, Aitz Gain etxea eta jatorrizko finkako aparkaleku-eremua, eta mendebaldean finka.

BIGARRENA. Alkatetzari ahalmena ematea Udal honen izenean eta ordezkaritzan ordainketa egin eta ordainketa- eta okupazio-aktak sina ditzan.

Hirugarrena. Kontu-hartzaileak emandako fiskalizazio-txostenarekin bat etorritik gero, adostutako prezioa 35.000 eurokoa dela onartzea, xedatzea eta aitortzea.

LAUGARRENA. Kontu-hartzaileak Zumaia flysch SLren administratzaile bakarra den Aitor Careaga Azkarragari emandako fiskalizazio-txostenarekin bat etorritik gero, 35.000 € ordaintzeko agintzea.

BOSGARRENA. Ebazpen honen berri ematea Kontu-hartzailezari eta Diruzaintzari, dagozkion ondorioetarako.



Zumaia, 2021ko urriaren 25a.
LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEKO BATZORDEBURUA
Iñaki Ostolaza.

Azalpena eman eta gero bozkatzera pasatzen da,

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV.)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: LEHENENGOA: Flysch Zumaia SL sozietatearen administratzaile bakarra den Aitor Careaga Azkarraga jaunarekin adostutako 35.000 euroko balio justua onartzen da, 10744 finkatik desjabetzeko banantzen den lurzatiari dagokionez:

Deskribapena: TSSZP-1 lurzatia, Zumaian San Telmo igogailua ezartzeko AU02 San Telmo errepidearen 1. egikaritze-unitatearen Plan Berezian definitua.

Laurogeita hamabi metro eta berrogeita hamar dezimetro koadroko azalera du (92,5 m2), eta bertan igogailu publiko bat egingo da, baita sarbideak ere.

Lurzati osoak muga egiten du: iparraldean, jatorrizko lurzatiarekin zati bat, Flysh hotela dagoen jatorrizko finkako garajeetara sartzeko arrapala, eta zati bat jabari eta erabilera publikoko espaloiarekin; hegoaldean, egikaritze-unitatetik kanpo dauden jabari eta erabilera publikoko azalera; ekialdean, Aitz Gain etxea eta jatorrizko finkako aparkaleku-eremua, eta mendebaldean finka.

BIGARRENA: Alkatetzari ahalmena ematea Udal honen izenean eta ordezkartzan ordainketa egin eta ordainketa- eta okupazio-aktak sina ditzan.

HIRUGARRENA: Kontu-hartzailetzak emandako fiskalizazio-txostenarekin bat etorritik gero, adostutako prezioa 35.000 eurokoa dela onartzea, xedatzea eta aitortzea.

LAUGARRENA: Kontu-hartzailetzak Zumaia flysch SLren administratzaile bakarra den Aitor Careaga Azkarragari emandako fiskalizazio-txostenarekin bat etorritik gero, 35.000 € ordaintzeko agintzea.

BOSGARRENA: Ebazpen honen berri ematea Kontu-hartzailetzari eta Diruzaintzari, dagozkion ondorioetarako.

SEIGARRENA: Desjabetutako jabeari jakinaraztea hartutako erabakia".

4.1.5.- ZUMAIKO AITZURI KALEA 20ko FATXADA BIRGAITZEKO OBRARI, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAN %95EKO HOBARIA APLIKATZEA ONARTZEA BIDEZKO BADA.-



Zumaia Udala

2021IAKU0009-A21/8363

LURRALDE ANTOLAMENDUAREN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2020KO URRIAREN 25EKOA, ZUMAIKO ONDARE HISTORIKOKO, ARKITEKTONIKOKO ETA INGURUMEN-ONDAREKO FATXADAREN BIRGAITZE INTEGRALEKO ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAREN GAINEKO %95EKO HOBARIA APLIKATZEKO DENA, ZUMAIKO AITZURI KALEA 20KO FATXADARI DAGOKIONEZ.

AURREKARIAK

1.- 2021eko urriaren 15ean, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren gaineko %95eko hobaria aplikatzeko eskatu zen, Zumaia kaleko 20. zenbakiko fatxada konpondu zelako, 2021eko irailaren 9an (fatxada birgaitzea) eta 2021eko urriaren 5ean (balkoiak eraikitzea) emandako bi obra-lizentzietan oinarrituta.

2.- Udaleko zerbitzu teknikoaren txosten teknikoa hobaria aplikatzearen aldekoa da, hurrenez hurren 270.652,00 eta 87.717,56 euroko exekuzio materialeko aurrekontuetan oinarrituta; guztira, 358.369,56 €.

3.- Ordenantza fiskalen berri eman da, dagokion IRIZPENA emateko.

Ondorioz, 2020ko urriaren 25eko Lurralde Antolamenduaren batzordean bozketa egin da, honako emaitzekin:

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (EHBildu)
Marina Bidasoro (EHBildu)
Alex Oliden Antia (EHBildu)
Oier Korta Esnal (EAJ)
Ainhoa Illarramendi (EAJ)

Aurka: 0

Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman da eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.- Zumaia kalea 20ko fatxada birgaitzeko obrari, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren %95eko hobaria aplikatzea onartzea, exekuzio materialaren aurrekontua (358.369,56 €) kontuan hartuta.

Zumaia, 2020ko urriaren 25a.
Lurralde Antolamenduaren batzordeko batzordeburua
Iñaki Ostolaza Esnal

Batzordean gaia azaldu ondoren bazkatu egiten da

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0



Zumaia Udala

2021IAKU0009-A21/8363

ERABAKIA: 1.- Zumaia Aitzuri kalea 20ko fatxada birgaitzeko obrari, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria aplikatzea onartzen da, exekuzio materialaren aurrekontua (358.369,56 €) kontuan hartuta.

Kultura pasako gara, hemen ere irizpena bozkatu behar dugu,

5.- KULTURA.-

5.1.- IRIZPENA:

5.1.1.- KULTURA ETA ARTEAREN ALORREKO SORMEN LANETARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2021EKO URRIAREN 14KO KULTUR BATZORDEAREN IRIZPENA, KULTUR ETA ARTEAREN SORMEN LANETARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI BEREZIEI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO

AURREKARIAK

1. Oinarri hauen xedea da Zumaia udalerrian kultura sorkuntza sustatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea. Dirulaguntza hauen xedea da artelanak egitera zuzendutako sorkuntza prozesu zehatzak garatu nahi dituzten zumaia guztiei laguntzea, eta baita udalerriri honi lotutako mota honetako proiektuak garatzeko interesa duten pertsonen laguntzea ere.

Oinarri hauek arautzen dituzten laguntzak Sormen lanak babesteko dira. Kultur sorkuntza bezala ulertuko da artistaren imaginaziotik eratorritako obra bat: literatura, antzerkia edo antzerki testuak, zinema eta ikus-entzunezkoak, dantza, arte plastikoak... Proiektu zehatzak babesteko xedea dute oinarriok, eta baita beharrezko sormen prozesua ere.

2. Onuradunak: Dirulaguntza hau kultur eremuren batean diharduten edo hasi nahi duten pertsona fisiko edo taldeek eska dezakete.

Sortzaileak norbanakoak edo taldeak izan daitezke. Taldeetan aurkeztuz gero, pertsona bakarra izendatu beharko da taldeko ordezkari bezala. Horrez gain, eskatzaileak nahitaez egiaztatu beharko du dirulaguntzak eskatzeko datan 18 urteko adina bete izatea.

3. Idazkaritzak txostena egin du oinarri horiek onartzeko prozedurari buruz.

IRIZPENA

Ondorioz, 2021eko urriaren 14ko Kultur batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 5 boto.

Aurka:

Abstentzioa:

Irizpen hau BAIESTE erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Erakunde Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, eta, hala badagokio, Udaltzatzen Osoko Bilkuraren irizpean jartzea. Udaltzatzen bere aldetik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. Artikuluan araututakoari jarraituz, bertan dauden gehiengo sinplez hartu beharko du ERABAKIA:

1.- Kultura eta artearen alorreko sormen lanetarako dirulaguntzak emateko oinarri bereziei hasierako onarpena ematea.



2.- Espedientea jendaurrean erakustea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikulua arabera.

Gaia lantzen da eta ondoren bozkatu egiten da

Aldeko botoak: 15 boto (9 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: 1.- Kultura eta artearen alorreko sormen lanetarako diru laguntzak emateko oinarri bereziei hasierako onarpena ematen da.

2.- Espedientea jendaurrean erakustea 30 lanegunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikulua arabera.

6.- PERTSONALA.-

6.1.- IRIZPENA:

6.1.1.- UDAL ERAIKINEN GARBIKETARAKO LANGILEEI APLIKATU BEHARREKO LAN-BALDINTZEI BURUZKO AKORDIOA ONARTZEA, BIDEZKO BADA

2021EKO URRIAREN 22KO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA, UDAL ERAIKINEN GARBIKETARAKO LANGILEEI APLIKATU BEHARREKO LAN-BALDINTZEI BURUZKO AKORDIOA ONARTZEA

AURREKARIAK

1.- 2021eko ekainaren 24ko Osoko bilkuran ondorengo adostu zen

Lehenengoa.- Zumaia eraikinak eta lokalak garbitzeko zerbitzuaren zuzeneko kudeaketa bere gain hartzea erabakitzea.

Bigarrena.- gaur egun ISS Facility Service SAK ematen duen "Zumaia zenbait udal-zentzoren zerbitzu-kontratua" azkentzea, 2021eko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Hirugarrena.- Zumaia Udalarik Zumaia jarduera-zentroari atxikitako ISS Facility Service SAK plantilla "finko ez diren lan-kontratu mugagabeko" langile gisa sartzea, jatorrizko enpresa kontratistaren lan-baldintza berberetan.

2.- Langileen Estatutuko 44.4 dionaren arabera:



Zumaia Udala

2021IAKU0009-A21/8363

“Kontrako hitzarmenik egiten ez bada, lagatzaileak eta langileen ordezkariak lortutako akordioaren bidez ondorengotza burutu ostean, ondorengotzak eragiten dien langileen lan-harremanak transmisioaren unean enpresan, lanlekuan edo transferitutako ekoizpen unitate autonomoan ezartzekoa zen hitzarmen kolektiboaren arabera izango dira”.

3.- Aipatutako artikulua dioena kontuan izanda eta behin garbiketa zerbitzua udalak bere gain hartu ondoren langile hauei aplikagarri izango zaien lan baldintzei buruzko negoziazioa hasi zen.

4.- Horrela, 2021eko irailaren 23an Alkateak eta udal eraikinen garbiketarako langileekin izandako bileran ondorengo adostu zen:

- Udal eraikinetako garbiketako langileen lan baldintzak Udaltzaren zehazten dituenak izango dira.
- Langile hauen kontratu mota “Indefinito no fijo” izaerakoa izango da.
- Urteko soldata 23312,54 euroakoa izango da.
- Udalak bere esku dauden baliabide guztiak jarriko ditu langile hauek euskara gaitasun titulua atera dezaten.

IRIZPENA

Ondorioz, 2021eko urriaren 22ko Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Aldeko bozka

Iñaki Ostolaza (EH-Bildu)
Arantza Gajate (EH-Bildu)

Abstentzioa:

Ainhoa Illarramendi (EAJ)
Iker Mardaras (EAJ)
Arritxu Marñón (ES-SV)

Asier Arakistainek (EH-Bildu) aldeko bozka ematen du baina gai honetan bateraezintasuna duenez ez da bere bozka kontuan hartuko.

Aldeko irizpena eman du eta honako Proposamen hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- Alkateak eta udal eraikinen garbiketarako langileekin 2021eko irailaren 23an sinatutako akordioa onartzea, aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruzkoa.

Zumaia, 2021eko urriaren 22an
Pertsonal saileko batzordeburua,
Asier Arakistain Alberdi, jna

Gaia, pertsonaleko batzordean eztabaidatu ondoren, bozkatu egiten da ondorengo emaitza izanik.



Zumaia Udalak

2021IAKU0009-A21/8363

Aldeko botoak: 8 boto (EH BILDU)

Abstentzioak: 6 boto (5 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

ERABAKIA: 1.- Alkateak eta udal eraikinen garbiketarako langileekin 2021eko irailaren 23an sinatutako akordioa onartzen da, aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruzkoa.

EH Bilduren zinegotzia den Asier Arakistainek aldeko bozka ematen du, baina gai honetan bateraezintasuna duenez, ez da bere bozka kontuan hartu,

7.- ESKARI – GALDERAK

Puntu honetan ez da gairik azaldu, beraz, bukatutzat ematen da

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hamabost minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria